

FUNTSEZKO ELKARTEAK

Gure negozioan aurrera egin ahal izateko beharrezkoa da zenbait elkarterekin lan egitea.

Aliantza estrategikoak

Alde batetik, Espainia mailan saltzeko, Espainiako teknologia enpresa batzuekin akordio batzuk izango ditugu. Esate baterako MediaMarkt, Fnac eta El Corte Ingles. Hauek ezinbestekoak izango dira gure produktua saltzeko, eta horrela ez dugu guk dendak eramateko ardura izan beharko.

Mundu mailan, Ebay eta Amazon-en bidez salduko ditugu gure enpresa zabaltzeko eta bezero gehiago izateko. Gure etorkizunerako asmoa, modelo eta konplementu gehiago sortzea da merkatua zabaltzeko, eta gure produktua modernizatzeko eta hobetzeko. Hau izango da teknologiak aurrera egin ahala softwarea eguneratuko dugulako.

Hornitzaileak

Gure produktua egiteko behar diren piezak ez ditugu guk egingo, beharrezkoak diren makinak ez erosteko. Ostera, enpresa batzuekin elkartuko gara, hala nola, Adient Seating Spain SL (Zaragoza) eta Plastic Omnium Automotive España SA (Valentzia), eta haiek bidaliko dizkigute piezak.

Horrela ez dugu diru mordera gastatuko, eta gure produktua hobetzeko inbertituko dugu. Aipatzekoa da, pieza guztiak eta produktua bera, Espainian bertan eginda egongo direla, esplotazioa saihestu nahi dugulako.